

2018-19 Urteko/ikasmilako programazio didaktikoa

Programación didáctica anual/de curso 2018-19

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribekosta BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	1.maila
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	Teknologia		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>áreas/materias integradas</i>	Teknologiak		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	HKG-Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna MG-Matematikarako gaitasuna AG-Arte-kulturarako gaitasuna GHG-Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna ZG-Zientziarako gaitasuna TG-Teknologiarako gaitasuna		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Ana Uriarte, Iker Gonzalez, Arrate Igarza	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-19

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

- PIG-Pentsatzen eta ikasten ikasteko gaitasuna
- HHG-Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
- EG- Elkarbizitzarako gaitasuna
- NAG-Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- IIG- Izaten ikasteko gaitasuna

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Arazo teknologiko xumeak hautematea eta definitzea. Arazoak horiei konponbidea ematea prozesu teknologikoa jarraituz. (TG, HKG, PIG, HHG, NAG, GHG)</p> <p>2. Marrazketa teknikorako oinarriko ezagutzak izatea. Adierazpen grafikoaren garrantzia jabetzea. (TG, PIG, HHG, NAG, GHG)</p> <p>3. Materialen sailkapena egitea, propietate orokorrak eta aplikazioak ezagutzea. Material berriak eskaintzen dituzten abantailak ohartaraztea. Zura eta deribatuak. (TG, ZG, AG, PIG, HHG, NAG, GHG)</p> <p>4. Taldean lan egiten ikastea, arduraz, errespetuz eta jokabide zuzenaz. Norberegano konfiantza estimulatzeko eta espiritu ekintzailea garatzeko. Elkar lanean aritzeak dauzkan abantailak baloratzen ikastea, taldekideen aniztasunagatik, ezagutzen aberastasunagatik, proiektu konplexuagoak arrakastaz ebazteko ematen duen aukeragatik. (TG, AG, HKG, PIG, HHG, NAG, IIG)</p>	<p>1.1. Arazo teknologiko xume bat identifikatzen, zehazten eta mugatzen du.</p> <p>1.2. Arazo teknologikoari konponbidea emateko asmoz iturri ezberdinetatik informazioa bilatzen, aukeratzen eta antolatzen du.</p> <p>1.3. Aukeratutako informazioarekin garatutako ideiak modu grafikoan adierazten ditu. Sistema diedrokoan objektu soilak marrazten daki.</p> <p>1.4. Proiektua eraikitzeke pausoak antolatzen ditu, eta sortutako premiak aurreikusten ahalegintzen da (materialak, tresnak, eta abar).</p> <p>1.5. Proiektua eraikitzean zura eta zur jatorria duten materialen artean egokiak aukeratzen eta erabiltzen badaki. Material horiekin egitura soil bat eraikitzeke gai da. Horretarako behar diren tresnen funtzionamendua eta haien segurtasun arauak ezagutzen ditu.</p> <p>1.6. Eraikitako proiektua ebaluatzeko gai da, hasierako baldintzak betetzen dituen egiaztatuz. Beteko ez balitu, konponbide berriak planteatzen badaki, eta posible balitz horiek aurrera eramango ditu.</p> <p>1.7. Oinarriko txosten tekniko idazten du. Bertan, proiektuan egindako lanaren deskribapena eta balorazio orokorra laburbiltzen du, baita oinarriko hobeak planteatu ere.</p>

5. Ebazpen teknikoa eta lorpen prozesua justifikatzea eta aurkeztea argudioak emanez konponbideei buruzko.

(TG, HKG, PIG, HHG, NAG, GHG, IIG)

6. Euskal Herriko lanbide eta baliabide teknologikoak denboran eta espazioan identifikatzea. **(TG, PIG, EG, NAG, GHG, IIG)**

1.8. Klasearen aurrean egindako proiektua aurkeztera ausartzen da, adorez eta konfiantzaz posible bada.

1.9. Tailer gelako arauak ezagutzen eta errespetatzen ditu.

2.1. Sistema diedrokoan objektu soilen bistak marrazten ditu, bista bakoitzaren kokapena ezagutzen eta antolatzen du.

2.2. Marrazketa teknikorako materiala ezagutzen eta zaintzen du. Garbitasun eta txukuntasunez erabiltzen daki (paraleloak eta elkarzutak).

2.3. Adierazpen sistemen artean (sistema diedrokoa eta perspektiba) bereizten daki. Baita oinarriko perspektiben artean (Cavalieri eta Isometrikoa).

2.4. Eskalaren kontzeptua ezagutzen du, eta kasuan-kasu eskala egokia aukeratzeko kapaz da.

3.1. Materialak identifikatzen ditu, baita non eta zertarako erabili daitezkeen.

3.2. Material berrien garrantziaz ohartzen da, eta hauek dituzten bereizgarri eta propietateak ezagutzen ditu.

3.3. Zura eta deribatuekin lan egiteko teknikak ezagutzen ditu. Tailer gelako proiektuetan material egokia aukeratzen du propietateen arabera.

4.1. Arazoen konponbideak planteatzen ditu lantaldean. Modu aktiboan parte hartzen du bere ideiak proposatuz, besteenak entzunez eta baloratuz. Irtenbideen artean egokiena aukeratzeko ahalegintzen da arrazoiak emanez.

4.2. Talde-lana dinamizatzen eta bultzatzen du lana antolatuz eta elkarren artean banatuz.

4.3. Taldekide bakoitza errespetuz tratatzen du. Espiritu kritikoa erabiltzen du iritziak baloratzean.

4.4. Taldeko ezagutzak praktikan jarriz, ahalmenen garapenak ematen duen autoestimua sentitzeko gai da.

5.1. Ikur zein hiztegi teknikoa erabiltzen daki.

5.2. Zirkuituak, eskemak eta grafikoak soilak erabiltzen ditu bere ideiak aditzera emateko.

5.3. IKT baliabide informatikoen laguntzaz lortu eta adierazten daki edukiak.

5.4. Informazioa trukatzeko eta partekatzen du ondoren baloratua izateko.

6.1. Tailer gelan eraikitako proiektuetan erabiltzen diren materialek eta lan prozesuek ingurugiroarentzat ondorioak ekar ditzakeela konturatzen da.

6.2. Paperaren eta egurraren sektoreak aztertuz egiturek jasan dituzten aldaketek ohartarazten da.

6.3. Konponbide teknologikoen historian izan duten bilakaera ulertzen du eta ezagutzeko grina erakusten du.

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.]

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.]

ARAZO EGOERA I:

Testuingurua: Ikasleak urtero ateratzen dira oporretan. Askotan gizakiak sortu dituen eraikuntza aipagarrienak ezagutzea dute helburu. Egitura horien tamaina eta formak harrigarriak izan ohi dira eta harrigarriagoa suerta daiteke harago joatea eta osatzen duten oinarrizko elementuak, materialak, formak eta esfortzuak identifikatzea eta aztertzea ezagutza eta ikuspegi zientifiko batetik. Baita ikasleak maiz zeharkatzen duten Plentziako zubiaren azterketa egitea ere.

Problema: Herriko zubia osatzen duen egituraren oinarrizko elementuak, materialak, formak eta esfortzuak identifikatzea eta aztertzea.

Xedea: Egitura bati egonkortasuna eta erresistentzia nola eman ikastea.

Ataza: Paperezko zubi bat eraikitzea. Gutxienezko baldintza betetzen dituen:

- 3kg pisuari eustea erdiko aldean.
- 250mm zabalera eta 200mm altuera duen itsasontzia zubiaren azpitik igarotzea.
- 140mm zabalera duen jostailuzko kotxea gainetik pasatzea.

ARAZO EGOERA II:

Testuingurua: Ikasleak antolamendu falta erakusten dute talde lana burutzeko, beste talde-kidei norberaren ideiak aurkeztuko, besteen ideiak entzuteko eta ulertzeko eta ideien arteko konparaketa egin ondoren egokiena eta praktikoa aukeratzeko.

Bada gaitasun hauek hobetzerantz bideratzen den proiektu bat, kanikodromoa hain zuzen erre. Jostailu antza duen proiektu honetan ideia ugari aurkeztu dituzte ikasleek modu erakargarrian eta aberatsean, eztabaidatuak izateko eta aukeraketa prozesu batean sartzeko.

Taldeak aukeratutako ideiak eramango dituzte eraikitzera, baina inposatutakoak edo ondo ez aukeratutakoak laster izango dira baztertuak eta zuzenketa aukeratzekoan mahai gainean jarriko dira berriz ere aurretik aintzat hartu ez diren ideiak. Honela talde-lana daukan garrantzia goraiatu da beste proposamenak entzutea eta arrazoitutako akordioak hartzeko.

Problema: Efektu kateatuko eta automatizazio maila duen egitura bat modu bateratuan eraikitzea talde lana bultzatuz.

Xedea: Lan mundura sartzeko prestatzea. Enpresa batean lan egiten hasten denean lan talde baten kide bihurtzen da ikaslea, beste langileekin koordinatzen eta bere onena partekatzen jakitea.

Ataza: Kanikodromo bat eraikitzea. Gutxienezko baldintza betetzen dituen:

- Kanikaren jaitsiera gutxienezko 20 segundo iraupena izatea.
- Bigarren kanika bat abiaraztea modu automatikoan.
- Kanikaren abiadura erregulatuko duten mekanismo ezberdinak sortzea.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

EDUKIAK:

1go. ebaluazioa:

- Teknologia eta prozesu teknologikoa. Egiturak eta esfortzuak. **4.Blokea** **9 ordu**
- Proiektua eta txosten-teknikoa: Paperezko zubia. **1.Blokea** **9 ordu**

2. ebaluazioa:

- Marrazketa teknikoa: materialak, tresnak, normalizazioa, kotak, eskalak,. **3.Blokea** **6 ordu**
- Marrazketa teknikoaren lehengo urratsak. Laminak **3.Blokea** **3 ordu**
- Materialak eta zura. **2.Blokea** **4 ordu**
- Proiektua eta txosten-teknikoa: Planisferioa. **1.Blokea** **5 ordu**

3. ebaluazioa:

- Ordenagailua eta periferikoak. **7.Blokea** **5 ordu**
- Softwarea. **7.Blokea** **2 ordu**
- Proiektua eta txosten-teknikoa: kanikodromoa **1.Blokea** **10 ordu**

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Oinarriak: Erabiliko den metodologia printzipio didaktiko hauetan oinarritzen da:

Ikasleen parte hartzea ardatz nagusia izango da; lan pertsonalean oinarrituta irakasleak talde-lana bultzatuko du, norberaren eta besteen ideia eta iritziak aintzat hartuz eta baloratzeko gaitasuna hedatuz. Aldez aurretik barneratutako kontzeptuetatik abiatu behar izango da, ikas-prozesua esanguratsua izateko; ikasle bakoitzak bere ezagutza eraiki behar izango du baina prozesu horretan ikasleen arteko ikas prozesua ez da arbuiatu behar.

Denboralizazioa: Ikasturtea hiru ebaluazioetan banatuko da, eta bakoitzean teoria eta praktika jarduerak landuko dira. Lehenengo eta hirugarren ebaluazioetan proiektu bat eraikitzen ahaleginduko gara tailerrean. Proiektu bakoitzaren txosten-teknikoa aurkeztu beharko da. Bigarren ebaluazioetan berriz, tailerrean laminak landuko dira proiektu gisa.

Taldekatzea:

Talde handian: gaiaren aurrezagupeak agerian usteko jarduerak egiteko, azalpen teorikoak emateko, lanen aurkezpenak eta abar.

Lan talde txikietan: arazoak ebatzi, proiektuak eraiki, txosten-teknikoak egin, aurkezpenak klasearen aurrean, unitateei loturiko zenbait ariketa, eta abar.

Bakarka: lan monografikoak(txosten teknikoak) , froga idatziak eta abar.

Jarduerak: mota desberdinetakoak proposatuko dira:

Aurrezagupen jarduerak, adibideak, azalpenak, sakontze ariketak, laburpenak, lan monografikoak, arazo praktikoak, txosten-teknikoak, aurkezpenak, objektuen eta sistemen analisiak, froga idatziak, ahozko galdeketak, praktikak, errepaso ariketak, errefortzu ariketak, zabaltzeko jarduerak, berreskuratze

jarduerak eta abar.

Espazioaren antolaketa:

Teknologia tailerra: hemen egokituko da proiektuak burutzeko jarduera.

Taldeko gela: bertan azalpen teorikoak eta idatzizko ariketak egingo dira.

Ordenagailuen gela: zenbait jarduera mota egiteko; informazioa jaso, diseinuak egin, txosten-teknikoak eratu, aurkezpenak, eta abar.

Ikastetxea bera: lanak erakusteko, bai maketak bai eta eraikuntza prozesuaren argazkiak ere.

Baliabideak:

Baliabide analogikoak:

Testu liburua: Teknologia 1 Jakintzaren Etxea proiektua

Argitaletxea: Zubia

ISBN kodea: 978-84-9894-017-6

Testu liburuaz gain beste baliabide batzuk erabiliko ditugu, batez ere, erremintak lamina koadernoak, eta proiektuetarako materiala, papera, kartoia eta egurra. Ahal den neurrian proiektuak eraikitzerakoan materiala birziklatzen ahaleginduko gara.

Baliabide digitalak:

IKT baliabideen erabilera bultzatu nahi dugu, bai ikasgairen garapenean, bai ikasleen lanetan eta ekintzetan ere:

- **Hardwaren** aldetik klaseko arbela digitala, eskola 2.0 ordenagailuak eta teknologia tailerrean dagoen kanoia erabiliko dira.

- **Softwarean** aldetik *Google Apps* plataformaren eskutik eta *uribekostabhi.com* kontua baliatuta hurrengo aplikazioak erabiliko ditugu:

1. Gmail
2. Drive
3. Classroom
4. Sites
5. Formularioak

Ikastetxea Sare-hezkuntza proiektuan sartuta egoteari esker. *Tecno 12-18* webgunean dauden material eleanitzak erabiliko ditugu.

Horrez gain, *Youtube* bezalako bideoak oso egokiak dira klasean lantzeko ingelesez aurki baitaitezke.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-irizpide bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada criterio de evaluación].</p>
<p>-Eguneroko lanaren behaketa.</p> <p>-Froga idatziak.</p> <p>-Egindako jardueren balorazioa.</p> <p>-Taldearen auto-ebaluazioa.</p> <p>-Norberaren lan-koadernoak.</p> <p>-Klasearen aurrean egindako aurkezpenari bai irakasleak bai eta beste klase kideek emandako balorazioa.</p> <p>-Txosten teknikoak.</p> <p>-Etxerako lanak.</p>	<p>Kontzeptuak: Kontrol desberdinak egingo dira. Notaren %45a izango da.</p> <p>Prozedurak: Ebaluatzeko tailer gelako lanetan eta klaseko lanetan erabilitako prozedurak kontutan hartuko dira. Notaren %45a izango da.</p> <p>Jarrerak: Klasean erakutsitako ikasgaiarekiko interesa eta jarrera baloratuko dira. Notaren %10a da.</p> <p>Dena dela, ebaluazioa bakoitzean, ehuneko hauek egokitu ahal izango dira emandako edukiei.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>BERRESKURAPEN SISTEMA</p> <ul style="list-style-type: none">● Unitateen berreskurapena: Azterketa bat ez badu gainditu berreskurapena egin beharko du ikasleak.● Proiektuen berreskurapena: Proiektu bat ez badu gainditu txosten-teknikoa osatu eta hobetu beharko du ikasleak.● Jarreraren berreskurapena : Jarrera egokia adierazi behar izango du hurrengo ebaluazioan zehar.● Ebaluazioaren berreskurapena: Aurretik aipatutako hiru urratsak eman behar dira● Ikasturte osoaren berreskurapena: Ekainean ez-ohiko ebaluazioan azterketa baten bidez egingo da. <p>JARDUERA OSAGARRIAK</p> <p>Hobekuntza planarekin bat eginez, ebaluazioetan teknologiarekin harremana duten testuak irakurriko eta landuko dira klasean. Testuaren gaineko galdera sorta prestatuko da ulermena</p>	

lantzeko, baita hausnarketa egiteko ere.

OHARRAK / *OBSERVACIONES*

- **Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.
- **Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.
- **HTB:** Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako **txantiloia** erabiliko da.
- **Hezkidetza (Aniztasuna):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorren gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.
- **Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."
- **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.
- **IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).